



CHUECA INTXUSTA, Josu
Nacionalismo en Navarra durante la Segunda República (1931-1936)

EHU, Valentin de Foronda Gizarte Historia Institutua
 Bilbo 1999.

XX. mendearen hasieran gorpuztu ziren ideologiaren azterketak berebiziko tokia bete izan dute gure historiografian. Foruzaleak, abertzaleak, *navarristak*, anitz eta maiz idatzi da azken urteotan ideologia hauen inguruan. Beti ere, ideologia izan da lan gehienaren jomuga, ideia horien inguruko azterketa, idatzirik utzi zutenari erreparatu diote. García-Sanz, Lopez Anton, Iriarte eta Nieva, besteak beste, euskaroen ibilbidea ardatza harturik, karlismo eta nazionalismoaren arteko harremanetaz mintzo zaizkigu. Alta, ezer gutxi landu da ideologia horien isla, hau da, egiazki zer nolako oihartzuna izan zuten ideologia horiek gizartearen. Nafarroan ezkerrek gizartearen eduki zuen protagonismoa hainbat lanaren jomuga izan da, konparazio baterako, Majueloren tesia edota klasikoa den Alttafayaren Navarra 1936 ikerlana. Gauzak honela, egiteke ziren lanetako bat, euskal nazionalismoak norainoko eragina izan zuen aztertzea genuen. Izan ere, Martínez Piñuelaren lan motzak eta Claveriak EAJren mendeurrenaren karitik plazaraturiko lanek ez zuten behar zen gisan goldatu aipagai dugun alorra.

Josu Chuecaren *El Nacionalismo Vasco en Navarra* liburuak, euskal abertzaletasunari dagokionez, gabezi hori emendatu du. Arestian aipaturikoez gain, ikerketa solteek –horietan Jimeno Jurío eta bildu gaituen liburuaren egilea bera aitzindari-, ezer eskaini badigute ere, egun, monografia hau mugarri zaigu bilakatu.

Lehenik eta behin, antolakuntza arloan euskal abertzaletasunak Nafarroan zuen oinarria aztertu du. Hasierako soak atomizazioa eta alderdiarekiko menpekotasuna agertu digu. Nafarroan ere, Hegoaldeko gainerako lurraldeetan martxan abiatu edota indartu ziren antolakuntza eta taldeak kausi daitezke, baina Nafarroakoek ez zuten erdietsi Gipuzkoan edo Bizkaian izan zuten zabalkundea. Bestalde, nazionalismoak komunikabideen alorrean egin lanaren fruituak pausatzen dizkigu. *La Voz de Navarra* eta *Amayur* hedabideak, jeltzaleek kazetagintzan garatu zuten estrategiaren lekuko izan ziren. *La Voz de Navarra*ren, neurri apalean izan bazen ere, abertzaletasunaren mugak gainditu zituen eta abertzaleak ez ziren kolaboratzaile zein irakurleengana iritsi zen. *Amayur*, alderdiaren hedabide ofiziala izaki, bestelako moldeak erakutsi zituen.

Ondorengo kapituluetan urte horietako dinamika politika zein soziala aztertzen dira. Gisa honetan, Estatutuarena da bigarren kapituluak jorrotzen duen gaia. Historiografikoki hagitz iradokorra izan den gaia dugu Estatutuarena. Bi dira, besteak beste, izaera hori ematen dioten ezaugarriak. Alde batetik, azken bozketaren ingurumariak sortu oihartzuna, hori guztia Jimeno Juríoren “Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco” liburu klasikoan dago bildurik. Bestaldetik, Estatutuaren alde agertu zen udalen kopurua, izan ere, euskal nazionalismoak bozketetan erdiesten ohi zuen boto kopurua, eta azkeneko bozketan ere, Estutuaren aldeko hautua egin zuten udalen kopurua ez zetozen bat. Bada, horrek guztiak azalpen luzea eskatzen du.

Chuecaren tesia argitara eman baino lehen, hainbat hipotesi egon bazeuden kontu horri azalpena eman nahi izan ziotenak, biltzen gaituen honetan, egileak, hipotesien alorretik baieztapenen eremura igaroz, gertakizun hori ulertzeko gutziz lagungarriak diren gakoak eskaintzen dizkigu. Lehenik eta behin, Estatutua berdin Foruak leloaren oihartzunaren garrantzia azpimarratu du, bestaldetik, eta aurrekoarekin loturik, euskal nazionalismoaren antolakuntzak martxan abiatutako kanpaina, -hagi denez, emankorra izan zena-, eta azkenik, ezkerren barnean izan zen eztabaida, sektore honetan Estatutuaren aldekoen hedapena pausatzen duen eztabaida.

Kulturgintzaren alorrean euskal nazionalismoak egindako lana dugu hirugarren kapituluaren ardatza. Chuecak ideologia-kultura binomioa hobeki ulertzen laguntzen digu. Beste era batean esanda, bien arteko sinergien azterketa eskaini digu. Testuan, Erize zein Urmeneta Purroyen tesien oihartzuna kausi daitezke. Bestalde, hauxe dugu, zorionez, gutxien sakontzen duen gaia. Zorionez diot, izan ere, tesia plazaratu ondoren, argia ikusi duten hainbat lan, kapitulu horren osagarritzat hartu ditzazkegu. Konparazio baterako, Bidadorrek edota Lopez Antonek berriki argitara eman dutenak

Ataka honetara iritsirik, Nafarroan euskaraz *ekoiztu* denaren inguruko eztabaidaz aritu beharrean gaude. Inondik ere, delako eztabaidak, bildu gaituen tesiaren markoa gainditu dezake, baina azken urteotan plazaratu diren lanek segida dutela ikusteak inoiz zabaldu den *basamortuaren* irudia gutziz ezbaian jartzen du, Camino, Etxegoien, Bidador, Lopez Anton eta enparauen lanek, badena dena da lelo ezaguna behin eta berri helarazi eta baieztatzen digute. Egun ere, basamortuaren irudiarena temati eta ozenki zabaltzen da; bizkitartean, batzuk loreak hasi dira biltzen.

Udalen gatazka dugu laugarren kapituluko gai nagusietako bat, hau da, *biurteko beltzaren* garaian Hegoaldeko udalek eta Madrilgo Gobernuaren artean gertaturiko gatazka. Hauxe dugu, seguraski, berritasunari dagokionez, liburuaren ekarpenik behienera. Gainera, eztabaidak Nafarroako udalen arteko hartuemanetan sortu pleguek gutziz erabakiorrak izan ziren ondorengo urte lazgarrietan.

Gerra aurreko hilabeteak eta nazionalistek, hau nazionalistak ziren gizon-emakumeek, altxamenduaren aurrean erakutsi jokabide dugu eranskinen aurreko kapitulua. Hainbat korapilo askatzen ahalegindu da egilea, ahalegindu, eta maiz, lortu ere. Afera honetan, ahozkotasanaren, garai hartako protagonisteei eginiko elkarrizketen balorea agertzen zaigu. Izan ere, duela gutxi arte, hirugarren mailakotzat edota gutziz baztergarriztat hartzen zen informazio iturria honek bere fruitua eman du. Jakin badakigu, inon bada, subjektibotasunik elkarrizketa horietan dagoela, baina metodoak dena bihurtzen du egingarri.

Euskal Herria osorako egin diren beste lan batzuk ez bezalaxe, Nafarroaren kasuan ukazioaren kontra borrokatu behar da. Chuecak bere liburuan biltzen duen gutzia edota gehiena ez zela existitu ere esan izan zaigu. Horrek guztiak lana zailtzen du, dokumentazioren peskizan ibili beharrak ez du bidezidorrik ametitzen, mehar agertzen zaigu dena. Horiek guztiengatik, eranskin gisa aurkezten zaizkigun gehigarriek berebiziko garrantzia daukate. Militanteen zerrendak irakurrita hainbat ondorio atera daitezke, lehenik eta behin, ez gaude antolakuntza xume baten aurrean, sozialki heterogeneoa da, eta lurraldean zuen hedadurari zegokionez, ez zen indar bertsuz zabaldu lurralde osoan. Bestalde zerrenda horietan agertzen dena, izan bazen, eta ondorioz izan ziren baina ez dauden anitz egon daitezke, eta egilea berak ondoren baieztatzen duenez, badaude. Horra hor, liburuaren beste baloreetako bat, oinarria finaturik, habeak paraturik, inoiz bukatuko den etxea eraikitzen joan.

Liburu hau foku baten antzera har genezake. Helmuga duen garaia argigarri, eta bai aurreko urteak bai ondorengo aroa hobeki ulertzen lagungarri dena. Afera honetan, frankismo garaian jazo zirenak, belaunaldien arteko ustezko etena argitzeko lagungarri izan daiteke. Bestalde, eta foku guztien gisan, itzalak ditu inguruan, aski ongi argitu ez diren eremuak. Horien artean, eta egilea saiatu den arren, EAJren barnean, Nafarroako EAJren barnean ziren sentsibilitate ezberdinak aztertzearena dugu. Esan bezala, gaiaren muinari heldu gabe, zerbait aurreratatu digu. Hain zuzen ere, altxamenduaren aurrean, eta hainbat arrazoi zirela medio, nazionalistek hartutako jarrera aztertzen duenean. Baina, Nafarroan urte horietan, Aranzadi, Cunchillos, Doxandabaratz eta bestek alderdiaren barnean korrante aurrerakoia osatzen ote zuten argitu gabe utzi du. Datozen urteetarako lanetako bat.

Akatsak, errakuntzak ez errepikatzeke balio omen du Historiak. Baieztape hau egia balitz, nekez aurkitu hau baino liburu hoberik.

Patxi Larrion



ECHEVERRIA EZPONDA, Javier
Los Señores del aire: Telépolis y el Tercer Entorno
 Barcelona. Ediciones DESTINO, 1999, 492 p.
 ISBN: 84-233-3169-5.

Las nuevas tecnologías de la información y de las comunicaciones están produciendo un impacto cada vez más profundo en todos los ordenes de la vida. Sólo por eso, debe ser particularmente bien acogido cualquier publicación que contribuya a una mejor comprensión de tan importante fenómeno. Si además resulta amena, completa y profunda, su lectura es obligada. Este es el caso del libro de Javier Echeverría, "Los Señores del aire: Telépolis y el Tercer Entorno". Este amplio y documentado volumen no es desde luego el primer trabajo del autor sobre el tema. Javier Echeverría es probablemente el mejor especialista en lengua española sobre el significado y las implicaciones de las nuevas tecnologías de la información. No sólo por el hecho de contar con varios libros, múltiples artículos y un premio nacional por sus investigaciones sobre este tema, sino porque aúna un sólido conocimiento de la naturaleza de estas tecnologías con una amplia visión, genuinamente filosófica, de sus implicaciones en todos los órdenes de la vida.

El libro tiene tres partes, de las que, a mi juicio, las más interesantes son la primera y la tercera. En la primera parte, se hace un análisis de la naturaleza y significado de las nuevas tecnologías de la información, enmarcándolas en una original visión del desarrollo humano en su globalidad. En esta primera parte es donde el autor nos presenta su teoría de los Tres Entornos, que, de forma aproximada, corresponderían respectivamente a las formas de organización social basadas en la Naturaleza (Primer Entorno) en la urbanización (Segundo Entorno) y, finalmente, en